


Sintesiak

Kapituluka, irakurtzen laguntzeko



Gorrotoa lege. Jon Etxaide. Elkarlanean.

Oñaztarrak - Butroetarrak - Jaun Gomiz Onzalutx

**Gorrotoa lege,
agintea helburu**


Ganboarrak - Abendañotarrak - Jaun Peru Abendañoko

Jaun Matxin Olasoko (edo Ganboakoa) bien tartean, bake bila.

Lehenengo multzoa



Bigarren multzoa



ENEKO KANPAIN. Jaun Matxinen anaiordea. Umezurtza, ama gabea. 31 urte. Bere aitaren gaztetako harremanen fruitua. Jaun Txerranek etxea hartua hiru urte zituenean.

Ohar garrantzitsua: hurrengo sintesiak ez dira eleberria bera baino lehenago irakurri behar. Gehienez ere, kapitulu bakoitzaren irakurketaren ondoren kontsulta daiteke dagokion argumentua edo sintesia. Bestela, galdu egiten dira istorioaren pilpira eta jakinmina, eta irakurgaia astun bihurtzen da.

I. **Ez haiz gure odoleko**

Pertsonaia batzuen aurkezpena egin du idazleak. Hurrengo kapituluetan ematen dituen zehaztasunak gaineraturik, ikus 1. orrialdeko *lehenengo multzoa*.

II. **Horra Bizkaia!**

Jaun Estibariz Mendiolako (Oñaztarra) bisitan joan da Jaun Matxin (Olasoko) Ganboakoarengana. Jaun Matxinek harrera egin dio, zerbait konpon daitekeelakoan. Arbasoen gertaerak gogoratu ditu bere amarekiko elkarrizketan. Oñaz eta Ganboarren sorreraren kondaira azaldu dio amak Matxini: Arabako Uribarri elizara urtero maiatzean ezko argiak eta kandelak eramaten ziren; borroka hasi zen nola eraman behar ziren: sorbaldan eramatea nahi zuten batzuek (Ganboa izena sortu zen); oinetan edo behean besteek (Oñaz izena hartu zuten). Bada, borroka sortu zen eta harrezkero guda izan da beti bi leinuen artean.

Aramaioko Jaun Estibariz Mendiolakori ongi etorria emanik, Elgoibartik Butroerantz abiatu dira. Jaun Matxinek Eneko Kanpain gaztea ezkutari daramala, Durango-Zornotza-Bilbo bidea aukeratu dute, luzeagoa baina bestea baino (Markina-Gernika) leunagoa delako. Bideko elkarrizketan Bizkaiko Lurraldea Butroe eta Abendañorena dela aitortu dute, erdibana. Hala ere, Gernikako Herri Batzarren aipamena egin du Jaun Matxinek eta bakeak egin behar direla iradoki du.

Anbotoko Mari pertsonaia mitologikoari buruz ere hitz egin dute.

Idazlea azaltzen da narrazioan protagonistek zuka egitearen arrazoiak azalduz: adin eta giza maila desberdintasuna. Bide batez, Euskal Herriko legeek euskaldun guztiei noblezia aitortzen zietela dio, nahiz eta Ahaide Nagusiek ez zituzten lege berdingarri horiek onartzen.

III. **Bidez bide**

Kapitulu honetan ere pertsonaia batzuk deskribatzen dira. Ikus ikus 1. orrialdeko *bigarren multzoa*.

Butroerako bidean Durango-Zornotza igarota, Gernikarako bidean Muxikako gaztelura iritsi dira. Han Gomiz Onzalutx Butroeko jaunaren seme zaharrena eta ama bizi dira: Jaun Eneko eta Andre Mari Muxikako.

Jauregiaren edo gazteluaren deskribapen arina egiten du.

III. **Bidez bide**

Harreran Presebal ezkutaria ageri da eta honekiko tragedia azaltzen da: Otxoa Butroeko bere aita, Gomiz Onzalutxen anaiordea zena, Otsandiora ezkondu zen. Hemen Ganboarrek ustekabean eraso zieten eta familia guztia hil, Presebal izan ezik, hau bere amonarekin Aramaioko jauregian baitzegoen. Gomiz Onzalutxek

bidalitako laguntza berandu iritsi zen eta Otsandioko hiria zeharo suntsitu zuten Ganboarrek. 1425eko urtea zen.

Muxikako jauregian afari eta afalondo eder bat gozatu zuten. Hurrengo goizean, Gernikarako bidean berriz ere, Haritz Doneak edo Arbola Sainduak bizkaitarrei onartzen zien berdintasunaz Gomiz Onzalutxek zituen iritziak adierazten dira: Haritza eta Gaztelua elkarren aurkakoak ziren. Honetan berdin pentsatzen zuten Oñaztarrek eta Ganboarrek.

IV. **Atzera begira**

1443. urtea da. Mungiarako bidean doazela, Jaun Matxinen gogoeta batzuen ondoren, 1414 eta 1437 urteetan bertan izandako borroken azalpena eman du egileak.

1414an Onzalu Gomizek –Oñaztarra, oraingo Bizkaiko Ahaide Nagusiaren aita– eta Ihoanes Abendañokok –Jaun Peru, orain Ganboarren Nagusia denaren aita– borrokatu zuten elkarrekin. Jaun Iakue Billelako zen Mungiaiko jauntxoak, Ganboarra. Onzalu Gomizek Mungia aldean zituen jabegoei eraso egiten zenez, honek Bertikizko jauregia gaztelu bihurtzeari ekin zion. Mungiaiko jaunak Abendañokori lurralde bat eskaini zion Butroeko jaunaren lurralde mugan, gaztelu bat eraiki zezan. Bi gazteluak eraikitzen aritu ziren bost urteetan bakea izan zen, baina Billelako jaunak deiturik Abendañokoa 1.500 gizoneko gudarostearekin Mungia etorri zenean Onzalu Gomizek eraso egin zion. Butroetarren 800 gudu-gizonen, Bertikizko gazteluan sendo babesturik, garaipena lortu zuten.

Ondorioz, Gaztelako erregeak –Bizkaiko Jauna– bi Ahaide Nagusiei deitu eta bi dorretxeak suntsitzeko agindua eman zien.

Horren ostean, idazleak Gomiz Onzalutxen nortasun ezaugarriak jartzen ditu agerian: nagusikeria, ankerkeria, zurikeria, norkeria, bekaizkeria; saldukeria zalea, lardaskaria baina auzi konpontzaile oso trebea.

1437an Gomiz Onzalutxek Bertikizko jauregia berreraikitzeari ekin zion. Hori ikusita, Jaun Orti Saontx Billelakok –Jaun Iakueren semea– eraso egin zion. Butroetarrek Mungia inguratu zuten baina hangoek Jaun Peru Abendañokoren laguntzarekin eutsi egin zioten. Bakeak egin behar izan zituzten eta, ondorioz, Bertikizko jauregia eta Zornotzakoa suntsitzeko agindu zitzairen.

Armen indarrak garaitzeko aukerarik ikusten ez zuenez, Gomiz Onzalutxek bere taldera erakarri zuen Mungiaiko jauna: Jaun Eneko seme zaharrena eskaini zion Jaun Ortiren alaba zaharrenari (Madalen Orti). Horrela, elkaturik geratu ziren.

V. kapitulua **Butroe, aurrez aurre**

Mungia iritsita, bertako ostatu batean bazkaldu zuten. Arratsaldean heldu ziren Jaun Gomizen gaztelura, gaztelu bikainera: hiru solairukoa eta, gorenean, omenaldi dorrea.

Eraikuntza eta inguruaren deskribapen zehatza egin du egileak eta, bukatzeko, gaztelu honekiko historiak eragiten dizkion gogoetak islatu ditu.

VI. kapitulua **Andre eta ohaide**

Jaun Gomiz Onzalutx Andre Elbira Leibakoarekin ezkondua zegoen. Errioxarra zen jatorriz. Elbiraren ama euskalduna zen eta noblezi maila handikoa. Leiban euskara galdua egon arren, euskaraz hezi zituzten bera eta senideak, inude euskaldun baten laguntzarekin. Hamabi urtetik gora, erdal giroaren eraginez, erdara zuen hizkuntza nagusi, baina Butroeko jaunaren gazteluko giroan berriz lortu zuen euskaraz trebatzea.

Jaun Gomiz Onzalutxek eta Andre Elbira Leibakok bost seme-alaba bizi zituzten:

- Eneko, nagusia; Butroeko, Muxikako eta Aramaioko jaurgoak bereak zituen.
- Onzalu, bigarrena.
- Otxoa.
- Joanikote Onzalutx.
- Oneka, alaba.

Jaun Eneko Muxikako ezik, gazteluan bizi ziren denak.

Ahaide Nagusiek ohi zuten bezala, Gomiz Onzalutxek ere ohaideak edo maitaleak zituen: bere kutunena Aramaioko Begi Urdina zen (Mari Domeka, bataio izenez). Honekin bi seme izan zituen:

- Jurgi Onzalu "Itxusko"
- Orti Onzalu "Burde"

Begi Urdinek bazuen bere senarragandik alaba bat, Butroeko jaunarekin elkartu baino lehenagokoa: Mari Gabon.

Egileak Gomiz Onzalutx eta Begi Urdinaren arteko harremanen sorrera azaldu du: 1429an, Jaun Peru Gebarakok ehizaldi bat antolatu zuen eta Oñatiko bere gaztelura gonbidatu zituen Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako zaldun nagusiak. Horrela, ehizaldiaren bukaeran, Ugartezebalgo jauregian emandako oturuntza batean ezagutu zuen bertako Begi Urdina etxeakoandre gaztea. Jaun Mikelekin ezkondua zegoen baina Butroeko jaunaren Aramaioko jauregira joateko gonbitea onartu zuen. Senarra haserretu egin zitzaion honengatik, baina joan egin ziren hala ere.

Butroeko jauna sarritan joaten zen Ugartezebalera ere eta, horrela, Begi Urdina haurdu geratu zen. Alde egin zuen familiakoengana.

Jaun Mikelek Butroekoa hil egingo zuela zin egin zuen, baina honen zerbitzukoek hil zuten lehenago bera. Ondoren, Butroeko jaunak Aramaioko gaztelura ekarri zuen Begi Urdina.

VII. kapitulua **Ezkontza usteak**

Butroeko jaun-andreentzat seme-alaben ezkontzak ardura handia ziren. Horien bidez Gomiz Onzalutxek

bere boterea indartzea zuen helburu bakartzat. Jaun Enekoren ezkontzarekin lortu zuen helburu hori; orain bigarrenarekin ere bide beretik zihoan: Onzalurentzat Jaun Txordon Begoñakoren Usoa alaba bakarra aukeratua zuen. Familia hori ere Abendañotarrei lotua zegoen; Ganboarra zen, baina Begoñako eliza nagusian ospaturiko ezkontza honen bidez Butroekoaren leinukide bilakatu zen.

Beste seme-alaben ezkontzek ere kezkatzen zuten Gomiz Onzalutx eta denen artean Oneka bere alaba bakarrarenak. Gazteegia zen, ordea: hamalau urte besterik ez. Hala ere, Jaun Matxin Ganboako, Olasoko nagusiari ezkontza ituna proposatzea erabaki zuen. Honetarako Jaun Estibariz Mendiolakorekin hitz egin zuen: honek proposatuko zion Jaun Matxini orain Butroera burutzen ari diren bisita egitea.

VIII.kapitulua **Zaldun galant hori**

Jaun Matxin gaztelura hurbildu ahala, bertako emakumeak, Oneka, Andre Elbira eta dama laguntzaileak alegia, liluraturik daude gaztearen edertasunaz. Honela, gizon-emakumeen arteko maitasun harremanez gogoetatzen dute, gizonezkoen jokabide bihozgabeaz. Horretan, Andre Elbirak Argia izeneko dama laguntzaileari Butroeko jaunarekin dituen harremanez zorrozki eta garratz galdetzen dio, salaketa gogorrek eginez.

Bitartean, gaztelu atarian elkartu dira Jaun Matxin bere segitaldearekin eta Gomiz Onzalutx. Honek harrera oso adeitsua egin dio. Ondoren, bigarren solairuko egongelara igon dira, han Andre Elbira eta Onekaren ongi etorria hartzeko.

IX. kapitulua **Ezaupide eta eskabide**

Butroeko jaunari eginiko bisitaldi honetan ehizaldi egun ugari igaro zituzten Jata eta Sollube inguruetan. Egileak ehizaturiko animalia askoren aipamena egiten du eta, batez ere, aztoreena, hegaztiak harrapatzeko oso erabiliak. Jaun Estibariz Mendiolako maisu zen honetan.

Ehizaz gainera, Jaun Matxin Onekarekin egoteko abaguneak ere bilatzen zituzten Butroeko jaun-andreek eta, horrela, alaba zeharo maitemindu zen Olasokoarekin. Honi ezkontza proposamena egin zioten eta, nahiz eta ados agertu, lehenago bere amaren oniritzia edo adostasuna ere lortzen saiatu behar zuela adierazi zien. Bere jauregira gonbidatu zituen Butroetarrak, horrela bere amak bestelako iritzi bat izan zezan eta ezkontza ituna onartu. Onekak, bere aldetik, baiezkoa eman zion Jaun Matxini, gurasoen aurrean.

Mungiako eskribauaren aurrean sinatu zuten itun bat; bi familien elkartasuna eta Oneka hamazazpi urtetik gora noiznahi ezkon zitekeela finkatu zuten.

X. kapitula **Jaun Peru Abendañokoren mendekua**

Jaun Peru Abendañokoa ez zen azken itun horretaz ohartua, baina Butroetarren lehenagoko bi ezkontzek ekarri zioten kalteagatik mendekatzeko irrikaz zegoen.

Itotzeko zorian, Butroeko gaztelura Orti Beltza iritsi da, Onzaluren zerbitzaria, Jaun Peru Abendañokok Begoñako Jaun Txordon Arzeitzen dorretxeari eraso diola jakinaraztera. Butroekoak laguntzera joatea erabaki du, Otxoa gaztelua zaintzen utzi duelarik; Presebal Gernikara eta Muxikara eta Joanikote Mungiara eta Bermeora bidali ditu ahaideen laguntza bila, denak Artxandan biltzeko.

Jaun Gomiz iritsi da lehenengo eta sarraskiaren berri eman diote: traiziozko erasoaren ondoren, Abendañotarrek ez zuten inor bizirik utzi (Onzalu semea, honen emazte haurduna, iloba...) eta alde eginak ziren. Butroeko jaunak mendekua aldarrikatu zuen. Hileta elizkizunak hurrengo egunean egin ziren Begoñako eliza nagusian.

XI. kapitula **Suzko erauntsia**

Egun batzuetako isilaldiaren ondoren, Jaun Gomizek erabakita zuen mendekuaren berri eman zien semei eta Presebali: Lekutioko gazteluari erasoko zioten, Jaun Peru Abendañokoren semeen egoitza zenari. Semeak eta Presebalek Butroekoa ideia honetatik aldentzea lortu zuten; Otxoaren burutapenei jarraiki, Lekutiokoa eraso ordeztu Abendañotarrenak ziren beste batzuk hartuko zituzten, haren indarra ahultzeko, azkenean Abendañoren Arratiako Urkizu gazteluari ekiteko.

Horrela, 1444ko maiatzean, Larrabetzuko Jaun Peru Enekoiz Zuaztikoren dorretxea hartu zuten lehenengo eta bertako biztanle guztiak hil. Ondorengo bi hilabeteetan, Arangurenokoa, Lezamakoa, Arteagakoa, Zamudioko eta Gamizekoa hartu zituen. Horietan emakumezkoak eta haurrak bizirik utzi zituzten. Azkenik, Arratiakoari ekin zion; ezin izan zuten erasoan garaitu baina su ematea lortu zuten eta kiskali. Hala ere, bertako Garindo Aketza kapitain kementsuak ihes egitea lortu zuela zirudien.

XII. kapitula **Lanaren sari**

Aipaturiko erasoetan Otxoa nabarmendu egin zen. Azkenekoan, gainera, zauritua gertatu zen eta, ondorioz, luzaro egon zen kinka larrian. Aitak sari eskaintza egin zionean, Otxoak harrokeriaz hala behar zela erantzun zion. Butroeko jaunak Urdaibaiko Marinarekiko ezkontza proposatu zion, horretarako Onzaluri adinako diru ezkonsaria aginduz. Otxoak, ordea, jaurgoren bat ere nahi zuen: Aramaiokoa. Aitak, ordea, jaurgoa osorik mantendu behar zuela argitu zion, eta Enekorri zegokiola. Otxoaren egoskerkeriari eta eskariei amore emanez, Lobaoko fraidetegia eskaini

zion, lur eta errenta guztiekin. Baina semeak ez zuten inondik ere onartu nahi izan eta asko haserretu ziren biak: aitak zaplazteko bortitz bat eman zion eta Otxoak betiko gorrotoa adierazi aitari.

Gomiz Onzalutxek ulertu zuen Otxoaren azken helburua Butroetarren jaurgoa osoa bereganatzea zela eta hori lortu artean ez zela geldituko. Horregatik erabaki izugarria hartu zuen: Antso Iturriko kapitain leialari bere semea hiltzeko agindua eman zion. Hala ere, kapitaina Otxoaren bila joan zenean alde egin zuen gaztelutik.

Jaun Peru Abendañokorengana joko duela eta honek hilko zuelakoan, lasai geratu ziren Butroeko jauna eta kapitaina.

XIII. kapitula **Onekaren egoteko aulkia**

Otxoak alde egin eta apur batera, Elgoibarko Olasoko gaztelura bisitan joan ziren Butroekoak. Bi eguneko bidaiaren ondoren, Jaun Matxinen harrera abegitsua jaso zuten; horren amarena, ordea, ez zen beroa izan, baina Jaun Gomizek kunplimendu beteko harrera egin zion.

Luzaro gabe, bi gazteen ezkontza-asmoez hitz egin zuten Butroeko jaunak eta Mari Urtizek; azkenean honek beraren onespina eman zuen, semearen borondatea errespetatuz. Tratua itxiztat eman zuten, ezkontza urtea eta eguna erabakitzeke.

XIV. kapitula **“Berriz enendorke Aramaio kontrara”**

Otxoak bere ihesaldian Arexola eta Baraxuengo gazteluetako jaunengana jo zuen, hauek Butroekoaren menpeko izanik ere, haserre baitzebiltzan Jaun Gomizekin. Izan ere, Mendiolako Jaun Estibarizekin batera, Aramaio aldean biltzen ziren zergen erdiak beraiei zegozkien, baina etekinik handienak ematen zituzten burdinola, errota eta elizarenak osorik gordetzen zituen beretzat Butroeko jaunak, behar ere behar baitzituen, han, Aramaion, Abendañoren aurrez aurre zegoen gudu taldea mantentzeko; baita Ibarako jauregia ere, Begi Urdina bizi zenekoa.

Bestalde, beraren menpekoei eginiko erasoei erantzunez, Jaun Peru Abendañokok Otsandio eta Abadiñoko jauregiak suntsitu zituen. Ondoren, Aramaioa abiatu eta Mendiolako hartu zuten, Jaun Estibariz kanpoan zelarrik. Ibarako, Baraxuengo eta Arexolako gazteluak, berriz, kementsu defendatu ziren. Honetan, Jaun Estibariz itzuli zen eta erasotzaileak Jaun Gomizen indarrak zirelakoan eta horiek gogo biziz borrokatu zutelako, alde egin behar izan zuen Peru Abendañok bere gudarostearekin, hainbat hildako utzirik. Berak ere kalte handia egin zuen, harana aberez hustu baitzuen.

Garaipena ospatzeko bazkari ederra antolatu zuen Jaun Gomizek Ibarako gazteluan eta abagune honetan zuzendu zitzaizkion Baraxuengo eta Arexolako

nagusiak ukatzen zien errenta zatia exijtzera. Butroekoak ez zuen amore eman eta elkarrekiko mehatxu gogorrekin bukatu zuten.

XV. kapitulua **Lekutioko batzarrea**

Butroetik alde egitean Otxoak bazuen aipaturiko egoera latz horren berri. Horrela, gauez bakarrik bidaiatuz Arexolako gaztelura iritsi zen, Jaun Iakue eta Baraxuengo Jaun Petri Urtiz Otxoaren asmoen jakinaren gainean baitzeuden. Hirurak Jaun Perurekin jarri ziren harremanetan eta honen gazteluan ezkutuko bilera bat egitea deliberatu zuten. Lekutorainoko bidea Joan Latz kondairako gazte erraldoi indartsuaren laguntzarekin egin zuen Otxoak. Nor bere bidetik, gauerdian bildu ziren Jaun Perurekin. Idazleak horren deskribapena eman du, baita Bazkoara Semeroiz Zurbanoko haren emaztearena ere. Lau seme-alaba zituztela aipatu du:

- Auria, neskabila, hamasei urtekoa.
- Ihoane, aitonaren izeneko mutikoa, hamalau urtekoa. Oinordekoa.

Biharamunean defentsarako zein erasorako elkarri laguntzeko ituna finkatu ondoren, Mendiolako eta Ibarrako jauregiak suntsitzeko eskaria egin zioten Jaun Peruri, baina honek beraiek bil zezaketen gudarostearen beste hainbesteko bat eskaini zien, besterik ez. Luze eztabaidatu eta gero, egoera haren aurrean Jaun Petrik atzera egin zuen eraso asmoetan eta, ondorioz, batasunik ez ikustean Jaun Peruk ere bere eskaintzan atzera egin zuen. Otxoak egoera txarrean segitzen zuen.

XVI. kapitulua **Oztopoa**

Ituna galdutzat eman baino lehen, Baraxuengo Jaun Petri Urtiz maltzurra Abendañoarekin mintzatu zen bakarka, akordio ahalegin berri batean. Otxoa zen oztopo nagusia; hura desagertuz gero, zerga kontuetan bilatzen zutena agindu zion Jaun Peruk. Otxoa hil beharra zegoen eta eginkizun hau Jaun Petrik hartu zuen bere gain. Arexolako jauregirako bidean hil zezan bidali zuen aurretik Joan Latz bere semea. Horrela, gezi pozoitsuz hil zuen Otxoa, baina baita berarekin zihoan Jaun Bikendi ere, Arexolako Jaun Iakueren anaia gaztea. Handik lasterrera azaldu ziren bidean Jaun Petri eta Jaun Iakue eta hilotzak aurkitu. Baraxuengoak, aurretiazko plangintzari jarraiki, Jaun Estibariz eta Azeari Landetako zirela hiltzaileak sinestarazi zion: mendekatzea erabaki zuten.

Egun gutxira, Jaun Peruren gudaroste indartsuak Aramaioko Mendiola eta Ibarrako gazteluei eraso zien. Lehenengoa hiru eguneko borrokan eskuratu zuen, Jaun Estibariz bertan hil zelarik; Ibarrakoa, Azeari Landetako kapitainaren kemenari esker, ez zen errenditzen, Begi Urdinaren borondatearen aurka. Honek, orduan, gudari batek kapitaina hiltzea lortu zuen.

Haren erreguei erantzunez, Jaun Peruk Mendiolako jauregia eskaini zion Begi Urdinari.

Jaun Gomiz eta Jaun Eneko semea saiatu ziren

hurrengo asteetan Aramaio berriz hartzen, baina ezinezkoa gertatu zitzaien. 1445. urtea zen.

XVII. kapitulua **Printzaketa**

Ahaide Nagusiek garai hartan hiri garrantzizko askotan zuzeneko boterea zuten, Oñatin, adibidez. Arrasaten ere hautaturiko alkatearekin batera Aramaioko Nagusiak jarritakoa zegoen, honen interesen defentsarako. Oñatikoak ere bere alkate ordezkaria zuen. Guduen ondorioz, Aramaion agintzen zuenaren arabera, aldakorra zen Ahaide Nagusien alkatea. Arrasateko biztanle gehienak, berriz, Butroekoaren aldekoak ziren.

(Egileak alkate edo endore horietako batzuen eta beraien emazteen aipamena egiten du, historiak ospetsu bihurtu dituzten eresiekin hornituz.)

Behin, Otxoa hil zuten Jaun Petri eta Joan Latz aita-seei Txorgori izeneko beraien zerbitzari batek hilketa hartaz hitz egiten entzun zien. Eta, ondoren, Bergarako baserrian erbesteratuta bizi zen Domiku Gorriari (Jaun Estibarizen semea) kontatzea lortu zuen. Honek, bere aldetik, Jaun Iakue Arexolakori egia azaltzea erabaki zuen, berriz ere Butroetarren aldera etor zedin. sinesgaitza iritzi arren, azkenean egia antza hartu zion Jaun Iakuek entzundakoari eta horrek beraren jarrera alda zezakeen.

XVIII. kapitulua **Gezurak labor hegoak**

Arexolako zaldunak bere zalantza guztiak argitzeko ez zuen etsi zerbitzariaren ahotik gertakizunaren berri entzun arte nahiz eta, beldurrez, Txorgori ez egon prest aitortzarako. Azkenean, hirurak bildurik, egiaz jabetu zen eta Domiku Gorriarekin Baraxuengo aita-seeak hiltzeko erabakia hartu zuen.

Txorgorik abisu emanda, Arrasatera egin ohi zuten irtenaldietako batean eraso zieten: Jaun Petri hil egin zuten baina semea, amildegitik erortzen ikusita, hildakotzat eman arren, bizirik atera zen eta hilabete batzuetan sendatu. 1448ko urtean gertatu zen hori.

XIX. kapitulua **Haize aldaketa**

Sendatu bitartean gorderik eta isilik mantendu zen Joan Latz; sendatutakoan legearen aurrean salatu zuen Jaun Iakue Arexolakoa eta, horrela, Arrasateko Jaun Otxoa Artazubiko Ganboarren alkateak preso hartzeko agindua eman zuen, bere gudaizaingoarekin batera. Jaun Peruren aginduz beste hamaika zaldun butroetar ere atxilotu zituzten, herri legean aurka.

Egoera nahasi horretan Jaun Gomizek, Jaun Peruk eta bai Jaun Txeru Beleiz Gebarakoak ere gudarosteak bildu zituzten, gerta zitekeenari aurre egiteko.

Jaun Txeru Beleiz Oñati, Gebara, Leintza eta Buradongo jaurgoen jabe zen. Andre Elbira, Butroekoaren emaztea, lehengusina zuen.

Gomiz Onzalutx mila gizoneko gudarostea bildurik Arrasaterantz irten zen, baita Jaun Txeru ere beste bi milarekin. Berau iritsi eta hurrengo egunean Butroekoak hiria setiatu zuen eta barrukoen laguntzaz, beraren aldekoak baitziren gehienak, hiriaz jabetu zen. Garaipena ospatzeko afarian, Butroeko jaunak Joanikote eta Oneka seme-alaben ezkontzak iragarri zituen: lehenengoa, Marina Urdaibaikoarekin; bigarrena, Jaun Matxin Olasokorekin. Azken honetaz, Antso Iturriko kapitainak bere mesfidantza agertu zion.

XX. kapitulua **Halabeharra**

Jaun Matxinek Butroekoarekin egindako tratua jakin zueneko Jaun Peruk ahalegin ugari egin zituen hauts zezan, baina ezezkoa jaso zuen denetan, Olasokoa ez baitzen gerrazale eta, gainera, Onekarekin maitemindurik zegoen. Arrasateko gertakizunen ondoren, inoiz baino beharrezkoagoa iritzi zion Jaun Peruk Jaun Matxinen aldekotasanari eta hau lortu asmotan aiton-seme eragingarrienetakoekin bisita egin zion Olasora. Hainbat argudio eman zioten Butroekoaren aurka borrokatzeko. Argudio garrantzitsuenetakoak Arrasaten herri boterea oinperatu izana eta hilketen eragile zuzena izatea, hots, Otxoa, Jaun Bikendi, Jaun Iakue hil izana. Horregatik beraren aurkako erasoan joateko Gipuzkoako Anaiarten eta Errege ordezkariaren baimena zutela adierazi zioten. Denen artean Jaun Matxin Butroekoaren aurka jartzea lortu zuten: beraiekin joango zen gudura.

XXI. kapitulua **Oinarria nolako, etxea halako**

Jaun Matxinen postura hartze harrigarriaren albistea berehala hedatu zen bazter guztietara. Jaun Gomiz ere zurturik utzi zuen berriak eta Antso Iturrikoren hitzak gogoratu zituen. Sinesgaitz egiten zitzaion, eta arrazoi nagusia Onekarenganako maitasunik eza izan zitekeela hausnartu zuen, baina Butroeko gazteluan bildu ziren azkenekoan –Jaun Matxinen ama ere bai–, Urdaibaiko Joanikoteraren emaztegaiaren lehen bisitaldiaren ospakizunetan, ez zuen giro amultsua besterik sumatu bi gazteen artean.

XXII. kapitulua **Anbotoko Mari**

Bada, 1448ko urteko ekainean Jaun Matxin (250 gudari), Oñatiko Jaun Txeru Beleiz (1.000), Jaun Eneko aurrekoaren anaia eta Jaun Peruren beste anaia bat (1.500), Jaun Peru Abendañokoa (bi-hiru mila) eta beste hainbat zaldun Ganboar bildu ziren Arrasateko harresien aurrean; zortzi-hamar mila guztira. Barnean zeuden Butroetarrek 1.500 inguru ziren. Hilabete batez erasotzaileei aurre egiteko moduan zeudela zeritzon Jaun Gomizek, Jaun Enekok Butroetar guztiak biltzen zituen bitartean.

Abendañokoak argi ikusi zuen lehenbailehen jabetu behar zuela hiriaz, Jaun Enekok Bizkaian bilduak baitzituen hiru-lau mila gizon, Gipuzkoan eta Araban bil zitzakeen beste bizpahiru mila ahanzi gabe.

Hesiketak eta bonbardek garaipenik ez zietela emango oharturik, Ganboatarren gerla batzarrak hirian sartzeko saioa egitea deliberatu zuten; gaizki aterez gero, gudarostea sakabanatu edo hiriari su emango zioten.

Gauetz ekin zioten erasoari, hiriaren hiru alderdi-tatik, dorre eta eskalekin. Borroka odoltsu baten ondoren, atzera egin zuten Ganboarrek: lauzpabost mila galdu zituzten, hilik edo zauriturik. Gomiz Onzalutxen gizonetarik hamar hil ziren eta hogeita zazpi larriki zaurituak gertatu.

Jaun Matxin eraso horren hurrengo egunean iritsi zen bere gudarostearekin, bileran zeudela. Bilera honetan, Jaun Eneko handik zortzi egunera gainean izango zutela jakinik eta Otxoa Artazubiko alkatearen proposamenez, Arrasateri su ematea erabaki zuten. Olasokoa hau egitearen aurka azaldu zen kartsuki. Eztabaidan, Oñatiko jaunak adierazi zuen ez zutela Erregearen zigorrak jasoko, Anbotoko Marik horrela jakinarazi ziola-eta: Arrasate erreko zela eta Halabeharra bera aukeratu zuela eginkizun horretarako. Jaun Matxin ahalegindu zen eztabaida zentzuzten baina alferrik zela ikusiz, kristau sinesmenari jarraiki berak ez zuela ankerkeria hartan parte hartuko adierazi zion. Batzarkideen biraoak jasan ondoren Jaun Perurekin mintzatu eta proposamen garbi bat egin zion: Ganboarrek segituko zuen erasoan, baina bere taldeak ez zuen erreketan zer ikusirik izango. Abendañokoaren onspena jaso zuen.

XXIII. kapitulua **Aitorketan**

Jaun Matxin nahigabeturik zegoen krudelkeria haren aurrean. Doniane bezperako suei begira, Eneko Kanpain gazte kementsuarekin hitz egin zuen, bi aitorten harrigarri eginez: batetik, Ganboarrek erasora etortzea Jaun Gomiz eta hiritarrei nolabaiteko laguntza eskaintzeko itxaropenez onartu zuela; bestetik, anaiak zirela jakinarazi zion Enekori. Horrela, bere jaun gisa baino anaia gisa tratatzeko eskatu eta Matxin deitzeko agindu zion.

Azkenik, eskaririk garrantzitsuenak egin zizkion: sutearen eraginez Arrasateko jendea beraiek zaintzen zuten sarbidera hurbiltzean, ahal izanik, inor ez hiltzeko agindua zabal zezala isilpean bere gizonen artean eta Jaun Gomizen bila hiri barnera abiatzeko gizon prestu batzuk aurkitzeko. Hauek Butroekoa Jaun Matxin zegoen Madalenako aterantz eraman behar zuten, salba zedin. Eneko bera agertu zen prest beste bost gudarirekin eginkizun hori betetzeko, eta frogatzat Olasokoaren eskutitz bat eramango zioten.

XXIV. kapitulua **Doniane gau lazgarria**

Beraz, 1448ko Doniane bezperako gauean sutan jarri zuten Mondragoe edo Arrasate Ganboarrek. Dena sutan jarri eta apur batera ireki ziren Madalenako atea eta jende multzo errukarria azaldu zen: emakume, haur eta agureak, errenditzen zirela aditzera emanek eta gudari lerrokada batek babesturik. Jaun Matxin hurbildu zitzairen eta armak botatzeko eskatuz, gizonetako preso-antzean hartzen zituela adierazi zuen; besteak Bergara-Elgoibarrera joan zitezkeela.

Honetan, Eneko eta bere taldea barneratu egin ziren. Suak eragindako sarraski ikaragarriak ikusi behar izan zituzten eta hondamendi hartan aurkitu ahal izan zuten Butroekoa, armaduraz babestua. Jaun Matxinen eskutitza erakutsi ondoren Madalenako ateraino salbu iristea lortu zuten. Behin kalean, Jaun Gomiz zela zioenak zaldi bat hartu eta ihes egin zuen: Eibartar zaldun bat zen eta zaldunak, halaber, berarekin irteerako bi kide.

Jaun Gomizek, Presebalek eta Joanikotek kinka larrian zirauten. Irteeraren bila, Antso Iturrikori haga handi bat erori zitzaion gainera. Bular-aurpegiak kiskaliak zituela atera zuten eta apurka-apurka Madalenako aterantz eramanez. Heriotza aurreko sufrimenduan luzaroan egin zioten lagun. Bitartean, Oñatiko Jaun Txeru Beleiz aldatu zen Madalenako irteerara. Jaun Gomiz eta bere kideek, egoeraz oharturik, borrokatuz hiltzea erabaki zuten. Aurkitu zituzten zaldietan irteeraren gudaroste oso bati aurre emanek: sakaildu egin zituzten.

XXV. kapitulua **Bekatzeko koroa**

Urte bereko abenduan epaitu eta kondenatu egin zituzten garaileak: Otxoa Artazubiko alkatea eta Oñatiko Jaun Txeru Beleiz bizirik erreak izatera; Jaun Peru Abendañoko eta hirurehun zaldun eta gudari gehiagori heriotz zigorra eman zieten: noblezi mailakoak uretan itoak; bilauak urkamendira. Hala ere, epaia jakin aurretik, nagusi gehienak Nafarroa eta atzerrira (Frantzia) alde eginak ziren, edo ezkutuan gorderik bizi ziren. Jaun Matxin besterik ez zen libro atera.

1451n Gipuzkoako Anaiarteek txikitu egin zituzten Jaun Txeru eta Oñatikoaren gazteluak. Txeru Beleizen Jaun Eneko anaiak, konde bihurtua azkenik, dirutza handi bat ordaindu behar izan zion Arrasateko hiriari 1461ean, lehenak eragindako heriotza eta hondamendiengatik.

Gerora, Ganboar zein Oñaztar zaldun guztien jauregi-gazteluak suntsituz joan ziren. Joan Latz ere salbatu zen, ohean baitzegoen sendatzen, erreketara izan zenean. Honek, egoera berria ikusirik, Butroera alde egin zuen, Jaun Eneko Muxikakorengana, aliatu gisa. Jaun Eneko zen orain Butroeko nagusia eta Aramaio berreskuratzeko aukera egokia ikusi zuen Joan Latzen laguntzarekin; horrela izan zen: inolako odolik isuri gabe bereganatu zuen ibarra.

Jaun Enekoren hurrengo betebeharra Aramaioko gazteluak sendotzea izan zen eta horien defentsarako gudarburu egokiak hautatzea; horretarako Joan Latzen laguntza izan zen. Aramaioa bisitan joan aurretik, Joan Latzek Begi Urdinaren Mari Gabon hogeita bat urteko alaba zoragarriarekin maitemindurik zegoela jakinarazi zion Jaun Enekori. Halaber, Itxusko eta Burde bere zerbitzuan hartzeko eta Begi Urdinari Mendiolarren jauregian bizitzen uzteko eskatu zion. Bisitaldian ama-alabekin txoraturik geratu zen eta, beste bisitaldi batzuen ondoren, bere ohaide izateko eskaria egin zion Butroekoak Begi Urdinari, ezkontuta egonik ezinezkoa baitzitzaion emaztetzat hartzea. Onartuz gero, lehenago bezala Ibarako jauregian handitasunean mantenduko zuela agindu zion; ezekoan, zorra ordaindu beharko zuela mehatxu egin zion. Onartu zuten, pozez gainera, eta historia errepikatu zen: Butroetarrek ohaideak beti Aramaioan.

XXVI. kapitulua **Dardoek egin arren bere aldia**

Tolosako auzian bere errugabetasuna legearen aurrean ere frogatu ondoren, Jaun Matxinek Onekari idatzi zion, ezkontza eskea eginez. Eskutitza irakurri behar izan zuen Andre Elbirak Olosokoaz zuten iritzi txarra aldatzeko. Dena den, Jaun Eneko ere azaldu zen eta berehalakoan adierazi zuen ezkontzari buruzko beraren ezeko biribila –ez zeritzon errugabe Jaun Matxini–; eztabaida sortu zen Oneka, Andre Elbira, Madalen eta Jaun Enekoren artean. Haserrealdia ere bai eta, horrela, Oneka jo zuen nebak, bide batez Madalen emazteari ere mehatxu eginez. Are gehiago: berak pentsatua zuen gizonarekin ezkondu beharko zuela bota zion Onekari edo bestela moja sartu beharko zuela.

Honen ondoren, amaren aldeotasun osoa jaso zuen Onekak eta haren baimenarekin ezkondu zen Jaun Matxinekin 1450ean, Olosotarren gazteluan. Ezteietara Madalenek ez zuen joaterik izan, senarrak debekatu egin baitzion. Oñaz eta Ganboarrak betiko elkartuak zeudela zirudien.

XXVII. kapitulua **Oinetako lur hau jabilt ikara**

Jaun Enekok bere aitaren hilketa mendekatzeko erabakia hartu zuen baina, errudunik gehienak erbestean egonik, zaila gertatuko zitzaion. Ezin itxaron zezakeen, ordea, errudunak itzuli arte; beranduegi izan zitekeen. Errudun zuzenengana iritsiko ez bazen, horien odoleko norbait aurkituko zuen eta mendekua betetzeko Jurgi Onzalu “Itxusko” eta Orti “Burde” beraren anaiordeak aukeratu zituen.

Jaun Marti Artazubiko gazte baketsua eta ezkongaiia, Mondragoeko Otxoa Artazubiko alkatearen semea zena, hilko zuten lehenengo. Anaiordeek mila bana florin hartuko zuten.

Arranbelari batzuen laguntzarekin, Jaun Marti Ibarretan hil zuten eta, lekukorik ez uzteko, berarekin zihoan Jaun Baladi Barrutiko ere bai.

XXVIII. kapitulua **Mari Gabonen frutua**

Jaun Enekoren anaiordeek ez zuten hilketaren aztarrenik utzi. Baina, eduki uste zuten botereaz puztuta, batean bestean neskatilak bortxatzen eta borroka odoltsuetan nahasita ibiltzen ziren beti. Horregatik iristen zitzaizkion kexuak bukatzeko gogor egin zien Butroeko jaunak. Itxuskok aintzat hartu zuen, baina Burdek bere horretan segitu zuen eta mozkorraldi batean Marti Artazubiko eta Jaun Baladiren hilketa aipatu zuen. Entzule ganboarrek berehala Bizkaiko Ibar-jaun Nagusiari eta Anaiarteei jakinarazi zieten. Luze gabe harrapatu zuten eta bere aitortzan beste kideen izenak ere eman zituen, Jaun Enekorena tartean.

Anaiarteko Alkateek heriotza zigor gogorrak agindu zituzten eta hala hil ziren harrapatu zituztenak.

Egoera honetan, Jaun Eneko ez zen Bizkaitik irten denboraldi luze batean. Mari Gabonek gorroto handia hartu zion bere neba hiltzen uztearren. Haurdun zegoen, baina ez zekien haurra Jaun Enekorena zen ala ezkondu aurretik Joan Latzekin izandako harremanen fruitua. Amaren isilean, Ibarrara erakartzea lortu zuen umea jaio eta gero, eta aita bera zela jakinarazi –umetxoaren aurpegiak salatzen zuen–. Maitemindurik, bigarren ume bat ere berarekin izan nahi zuela aitortu zion.

XXIX. kapitulua **Azken beltza**

Bi maitaleek mendekatzeko erabakia hartua zuten: Aramaion egiten zuen lehen egonaldian hilko zuten Butroekoa. Horretarako, Mari Gabonek eskutitz bat bidali zion, gudari gutxi ekartzeko ere esanez Anaiartearen gudaritzak susmorik har ez zezan.

Gauetz bidaia eginez eta hamabi gizonak lagunduta iritsi zen Jaun Eneko. Joan Latzek kontu handiz bere gudariak kokatuak zituen gaztelu inguruan. Horrela, ustekabean harrapatu eta Mari Gabonen ohean hil zuen Joan Latzek eta honen gudariak laster batean menderatu zituzten Butroekoarenak.

Hurrengo egunean Aramaion zehar iragarri zuten berria: Aramaio ez zen ez Butroeko ez Abendañoko, bere buruaren jabe baizik.

XXX. kapitulua **Ospa dezagun**

Jaun Enekoren heriotza katea luze baten azkena zen; Oñaztar buruzagi gehienak hilak ziren, bata bestearen atzetik.

Andre Madalenek, baketsua eta bihotz onekoa izaki, ez zion berehalakoan ekin Aramaio bereganatzeari, interes handirik ere ez baitzuen horretan. Baina beldur zen bere hamar urteko semeak, nagusitan, ahalegindu ez izana aurpegira ziezaiokeelakoan. Bestetik, haren gudalburua Aramaio lehenbailehen hartzearen alde agertu zuen. Gudarostea indartzea besterik ez zuen erabaki.

Butroeko gazteluan egin ziren Jaun Enekoren hiletak. Bertaratuak zeuden Oneka eta Jaun Matxin eta honek Gomiz Onzalutxekin eginiko elkertasunezko itunak indarrean zirauela adierazi zion Andre Madaleni.

Eskutitz bat bidali zion Madalenek Aramaioko amoranteei, ibarra bere esku utziz gero ez zuela mendekurik hartuko aginduz. Aramaio nahi baldin bazuen, etortzeko armekin hartzera erantzun zioten.

Jaun Matxin konturatzen zen egoera oso arriskugarria zela: Butroetarrek indarririk erakutsi ezik, Muxika eta Butroe ere laster galduko zituzten. Horrela, Onekaren adostasunaz, bisita egin zuten Butroera. Andre Madalen Olasokoarekin bat zetorren eta bien indarrak baturik –Jaun Matxin buru, Madalenek hala nahita– Aramaio eskuratzeari ekingo zioten.

XXXI. kapitulua **Jainkoak bedeinka zaitzala**

Baraxuengo, Arexolako, Uribarri-Mendiolako eta Ibarrako dorretxeak hartzeko hiru mila gizoneko gudarostea prestatu zuen Jaun Matxinek eta beste bizpahiru milarekin Olason egoteko agindua eman zion Eneko Kanpaini, Abendañotarren laguntzarekin gauzak okertuz gero borrokara biltzeko.

Ibarrako dorretxera zuzendu ziren, hura eroriz gero besteak ere berehalakoan errendituko baitziren. Bertan zegoen Joan Latz, bildu ahal izan zuen gudaroste txiki batekin. Mandatari bidez, Jaun Matxinek bi maitariei jakinarazi zion errendituz gero bizia barkatuko ziela, baina Anaiarteen esku utzi behar zituela. Horren aurrean, ez zuten etsi.

Setio luze baten ondoren, matxinatu egin zitzaizkien Joan Latz eta Mari Gaboni gudariak: hil egin zuten Joan Latz eta hilik aurkitu zituen Jaun Matxinek Mari Gabon eta Begi Urdina bere ama ere.

Andre Madalen Aramaioko jabe aitortu zuen Jaun Matxinek garaipenaren ospakizunean.

* * * * *